




Azalera handietako salmentak %0,3 handitu ziren

Azalera handietako salmentak

Urte bakoitzeko urtariletik abendura. Indizea




Iturria: Eustat.

Azalera handietako eta elikadura kateetako salmentak %0,3 area-gotu ziren 2024. urtean. Bigarren urtez jarraian hazkundea lortu da, baina ez da 2021eko baliora iritsi. Elikagaien salmentak %0,6 egin zuen gora, eta gainerako produktue-na, ordea, %0,3 murriztu zen.

Azalera handietako enplegua hazi egin zen 2024ean

Azalera handietako salmentetako enplegua

Urte bakoitzeko urtariletik abendura. Indizea




Iturria: Eustat.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako enplegua %1,6 handitu zen 2024an. Horri esker, iaz erregistratutako indizea handie-na izan zen datuak argitaratzen hasi zenetik. Hazkundearen erritmoa egonkorra izan zen urte osoan zehar, bereziki bigarren seihilekoan.



Eraikuntzaren kostuak igo egin ziren abenduan

Eraikuntzaren kostuen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren kostuak %0,8 hazi ziren abenduan aurreko urteko hil beraren aldean. Eraikuntzako kostuak zein obra zibilekoak garestitu ziren (%0,9 eta %0,5, hurrenez hurren). Era berean, lan eskuaren kostua %5,4 igo zen, eta lehengaiena, ordea, %0,8 murriztu zen.

Estatuko KPI indizea %3,0an kokatu da urtarrilean

Estatuko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

KPIaren adierazle aurreratuaren urte arteko aldakuntza %3,0an kokatu zen urtarrilean, abenduko tasa baino bi hamarren gorago. Bila-kaera hori, batez ere, erregaien garestitzeak eragin zuen, 2024ko urtarrileko jaitsieraren aldean. Halaber, neurri txikiagoan bada ere, elektrizitatearen prezioek ekarri zuten, aurreko urteko hilabete berean baino gehiago igo baitziren.